*Irakasleak kezkatzen ditun moda bat*

# Diskoteken sukarra

***Miñezko naste, aske ta gogorra; argiz betea, kolorez eta zarataz kuin-kuin, iskanbil-zarataz batez be.***

***Basa-miñuzko maitasun ori, beragaz daroazan seksu ta maitakerizko aidego-kutsu guztiakin, kolorezko jantzi ta arpegientulki ta muxaranga guztiakin, «bizi diran mundutik iges-egin» bearraren edo urrindu-naiaren laburpena besterik ez da.***

A.S. DIEZ CASEN'ek

DROGA» barri bat dala diñoe askok. Ez da erretzen ez dagan «ziztada» gaztedia burutik egiñ dakarrena. Bakarrik, bikoka edo taldeka, neskak mutillaz, andrak bakarrik, andrak andrakaz, andrak «gays'ekin» eta gizonak «gays'ekin», danak naspil, ...dotzen dira, estutu alkar, dardarau, izerditu, argi psikodelikoz ...teriko areto, saloi ta gizategie... psikodelikoz diñot, orrela ...daute esaten gaur kolorezko ...gen diriñr, begi-klisk eta kiñu ...tzaile lillurakorrai; guzti au ...belio askotara jarritako musi... Diskotekak dira. Modako ...oka emoten dan toki-uztaia: «disko» musikarena noski. Jakin ...egunez eta igarri leitekenez, ...saoi-gaietan zorrotzegia izan ezta be, moda au Ipar-Amerika'tik datorkigu, moda barriak, uiñak, olatuak eta beste antzeko bedar batzuk bialtzen maixu dogun naziño berezi-berezitik.

Ixura danez, «disko» drogak onak dira bizitzako piperrik ezatik eta gaurkotasunetik iges egiteko, uri aundietako asfaltu ta kristal artetik urrintzeko, jainkoakin kidetu ta sentidutzeko, egitik landako mundu baten aurrelari izan nairik. Naste au maitakerizkoa da, askea ta gogorra, argiz, kolorez eta zarataz gaiñezka, batez be iskanbil-zarataz ondo astundua. Uts-une aundien zuloak zurrubeггu ta kairaxiz bete, eta bide batez burua aaztu-azo ta ikasketak, eta lana, eta auziak, eta politika.

Geienez, gabeko amarretan as-

ten da, baiña ez daukagu zetan izan ain zeatzak, edozein ordutan asi daiteke; jai-eroalea asten da gortu-bearrezko jote burrunbatsuz, ondoren datoz beste jogaillu elektronikuak, goi-lezetako aotsak, guzti ori ixetu ta itzali abiada izugarrian egiten diran argiakaz biribilduta. Baiña «disko» musika guztik dauan guna ta saltsa soiñuaren goi-bea da. Pertsona batek beste bategaz, oiuka, alkar-izketaren bat euki al ba'leuke, ez dau balio, or txarto doa zerbait. Garrantzikoa, sustraizkoa da, iñok ez dagiala ezer entzun, ezta pentsetan dauanik be; bakar-bakarrik entzun bear dira bi milla indar-batioak, alkar arteko komunikabide zirraretsurako lenengo oiñarria dan zerbati orrena nunbait; naste ta zirrara ortan, irauli, dardarazi ta izerditzen dana ez da iskanbil ikaragarri baten apurra besterik. Orduan, oizkoa, rituala betetzen egongo gara.

### Laterri batuetatik etorri zan sukarra

Laterri Batuetan asi zan gauzea; disko-musikak an, gaur-eguneko diskoteken errezoizko mamiña danak, betiko suntsitu zituen 60 urteetako diskotekak; garai aretan, jente gaztea ain gor ez egoanean, eta egoterik ba bear ez ebanean, ritmua etzan ain bizia, naiko eragiña zalarik be, «porro» baiño naiago eben uiski, eta tuistek be jentea bizkor-azten eban. Guzti ori ostendu zan; diskotekak geroztik ez eben bear maiak, ezta zerbitzaririk be; eta, jakiña, iñok ez eukan geroztik zer esanik, eta alkarriztarenak egin eban, 1975'an, kantari batz ez-ezagunen batek, Aintza Gaynor'ek 12 miñutu baiño geiagoko abesti bat grabatu eban, barrabasaren ritmo baten, orduarte iñoiz be entzun bakoan. Abestiaren burua zan: «Never can say goodbay» —«Ezin ot iñoiz esan agur»— eta arrakasta itzela izan eban, urte barruko aundiena, ainbat eta ainbat disko irarri ziran diskoteka guztiak beterik. «Disko» musikaren ernetzea, orixe izan zan. Mundu guztiko gazteak jarraian dardarazi ziran disko orrekin. Eta ondoren on ortatik jaio zan fenomenu ezin-siñistuzkoa, zaratotsaren sukarra.

1975'garren urtean bertan, Laterri Batuetan 3.000 «disko» musika leku iriki ziran. Gaur 15.000 eltzen dira, eta Manhattan'go Studio 54 barruan artzen dute, eta onek 450 gaillu berexi eskintzen ditu, zaratotsean, jakiña; «New York, New York», azpitik ernetzen diran larrosa kolorezko odeiekin; Los Angeles'ko «Dillon's», Sinatra'k, Paul Neuman'ek, Peter Falk'ek naiz Tony Curtis'ek sarri lan egiña; «Disko Capital» deritxona, Washington'en, arraiñez beterik urtegi bategaz.

Urte bete geroago Europa osoa beteten eban. Monako'tik asita, amdaka diskotekakin, batzuk eguneko 24 orduetan zabalik egozanak eta beste batzuk 12 urtetik beerako gaztetxoentzat be egokituak; Paris'tik, emengo «La Main Bleu» leku ospetsuak, iru milla persona errez artu leikez, danak batera zalaparta, eragin eta iñatosi bizian. Itali, Espaiñi ta Inglaterra bardin gisa barriko dikotekaz aseturik dagoz, Laterri Batuetan, ostera, moda barri bat gertatzen diardue zentzun eta buru bakoak kolonizetan jarraitu dagien: diskoteka oneik aparteko pistak daukiez txirrinkazko patin gainean «disko» musika dantzatzeko. Urte bi barru emen izango doguz guk be, ipar-amerikarren morroi zintzo garean eutarrok.

Travolta'k egin bear dauala diñoe, eta Travolta'rentzat ona dana; zaratotsez gor geratzea baiño beste zeregiñik ez daukan edozein gaztentzat ona da, dudarik bage. Olako asko dago bazterretan.

Modaren atzean dago beste alderdi zeatzagoa: dalako «taka-taka», Ego-amerikan diñoenez. Laburki: dirua, negozioa, inglesen «bussiness», pastea, betiko «bi-[illegible]» iruntsiten dabena.

Ain zuzen be, Laterri Batuetan dagozan 15.000 diskotekaz gaiñera —gaur 20.000'rantza doaz—, 250 irrati-toli dagoz an, bezeruai korroka egin eta modeari guna ateraten zuur eta bein-beiñakoak diranak. Neu York'eko kate txiki bat, WKTU deritxona, gienen entzuten dana egin da, eguneko 24 orduetan «disko» musika igarorik.

## Dollarren errazoiak

Disko negoziuetan, Laterri Batuetan, 10.000 milloi dolarreko kopurua agertzen da; euneko 85 disko-azokan «disko» musikak daroa. «Larunbat-gabeko sukarrak» 35 milloiko numerua lortu dau, Bee Gees aleetan noski; pop talde bat dogu au, leen ixildua eta orain «diskoaz» barriro agertua; Aintza Gayner berak bakarrik, bere azkenengo «I will survive» arrakasta aundikoaz, iru milloi dolar irabazi ditu. Beraz, itandu oidan guztietan «Zer dago gazteen moda nabermenen ostean?», oba da atzean gordeten dan diru-mataza ikustea. Gazteen modak, izan be, adierazo daikeguz, bizitzea urietan batez be oso latza dalako eta guztiok oso triste dagozalako, eta abar, eta abar; baiña baite, eta batez be, gazteak gero ta geiago diralako munduan, irabazi-indar geiago dabelako, eta laguntalde mordoen komunikabideak errez be errez eurenganatzen dituelako.

Eta gaiñerakoa erreza da. Bi ta bi batera ezkero, errez lortzen dana dogu, milloika gazteakaz,

euren txanponak edo lauerlekoak aurrean daukezan edozein kolorezkoren ordez emoteko gertu ta prest dagozanakaz, ugaldu edo kopurutu; ez da besterik bear. Esate baterako: Donna'k Summer «Love to love you baby» abesten, 22 soin-jote diralako egin nairik. Donna'k esan eban, diñoenez: «Diskoa, maitasuna da, bizia da». Au aztu jakon: «Dolorrak be badira».

Amerikar disko-etxeren bateko zuzendariren batek au esango dau, bear bada: «Disko-musikaren gertakaria 50 urteetako rock-and-roll garaiaren antzekoa da, gazteen irrika ta gurariari erantzuten dautsona. 55-60 urteetan, rock-and-roll'ek adierazo ta itxuratzen eban gazteen iraultza, gurasoen aurka, agintarien aurka, gizarteko oitura ta beste gauzen aurka. Gaur-egunean, gazteak askatasunaren edo askakeriaren tontor guztiak irabazi dabez, eta eurak dirala garaille erakutsi nai dabe. Leengo gaztediak iraultzaren sukarra aurkitu ba'eban, gaur diskoa da indarraren eta bizitasunaren garaipidea».

Antze edo arte-zuzendari orrek diñoana, ta ba-dau beronek zergaitik ortan jakitun egon, erdizka egia da, baiña ez dana. Askatasun-muiño batzuk ba-dira, ba, gazteak lortu ez dabezanak, ezta urrik emon be; lan-egin naiak eta lan-egin al izateak dakarren askatasuna —lanik ezak eta lanik egin nai ezak dakarskun buruko miña— geroari begira ikuspegi piskorren bat emon, lillura ta zorabioa baiño zerbait geiago danari ekin. Diskoteka arazoak lillura-musikaz ordintzeko bidea eskintzen dautson lez, gizarte au obetu daikean beste zerbait asmatzen be nekarazi bearrean legoke gaurko gaztedia.

Dana dala, egia auxe da: «Larunbat gabeko sukar» orrek, «iraultzazkoa barik, askatasun osozkoa» dela diñoen musika orrek, askoren kezkak bizi-azten ditu.

### Gaztediaren pozoidura

Beti daukaguz, eta ez urrin, adur txarra iragarri oi daben egoti gaiztoak, eta abots ezkorrak, edozertarako egon be. Baiña «Disko» musikak eta beronen diskotekak asko be asko artegatzen dau Amerika'ko eskola ta ikastetxetako giroa.

Diskoteken auzia, esandako berezitasunakaz, inportantzi ikaragarria artu dau amerikar gaztediaren artean; oneitariko asko irakasleak Unibertsadeetan, baita Harvard'eko ospetsuan be, eta orrek diñoe bildurrez «gaztedia arriskuan dagola». Ezer baiño leen pozkin gura dana da, moda oni zer eragiten dautson, nundik datorkon ainbat indar daben isilleko gurariok. Eta azkenez, ondoren eta

Urte bete geroago Europa osoa betetzen eban. Monako'tik asita, milaka diskotekakin, batzuk eguneko 24 orduetan zabalik egonak eta beste batzuk 12 urtetik gorako gaztetxoentzat be egokiak; Paris'tik, emengo «La Main Bleu» leku ospetsuak, iru milla pertsona errez artu leikez, danak batera zalaparta, eragin eta iñarrosi bizian. Itali, Espaiñi ta Inglaterra bardin gisa barriko dikotekaz aseturik dagoz, Laterri Batuetan, ostera, moda barri bat gertatzen diardue zentzun eta buru barik kolonizetan jarraitu dagien; diskoteka oneik aparteko pistak daukiez txirrinkazko patin gaiñean «disko» musika dantzatzeko. Urte bi barru emen izango doguz orek be, ipar-amerikarren morroi zintzo garean eutarrok.

Travolta'k egin bear dauala dinoe, eta Travolta'rentzat ona dana, zaratotsez gor geratzea baino beste zeregiñik ez daukan edozein gaztentzat ona da, dudarik bage. Olako asko dago bazterretan.

Modaren atzean dago beste alderdi zeatzagoa: dalako «taka-taka», Ego-amerikan diñoenez. Labur: dirua, negozioa, inglesen «business», pastea, betiko «bi-[illegible]k» iruntsiten dabena.

Ain zuzen be, Laterri Batuetan dagozan 15.000 diskotekaz gaiñe- -gaur 20.000'rantza doaz-, 250 irrati-toli dagoz an, bezeruai korroka egin eta modeari guna ateraten zuur eta bein-beiñakoak diranak. Neu York'eko kate txiki bat, WKTU deritxona, gienen entzuten dana egin da, eguneko 24 orduetan «disko» musika igarorik.

**Dollarren errazoiak**

Disko negoziuetan, Laterri Batuetan, 10.000 milloi dolarreko kopurua agertzen da; euneko 85 disko-azokan «disko» musikak daroa. «Larunbat-gabeko sukarrak» 35 milloiko numerua lortu dau, Bee Gees aleetan noski; pop talde bat dogu au, leen ixildua eta orain «diskoaz» barriro agertua; Aintza Gayner berak bakarrik, bere azkenengo «I will survive» arrakasta aundikoaz, iru milloi dolar irabazi ditu. Beraz, itandu oidan guztietan «Zer dago gazteen moda nabermenen ostean?», oba da atzean gordeten dan diru-mataza ikustea. Gazteen modak, izan be, adierazo daikeguz, bizitzea urietan batez be oso latza dalako eta guztiok oso triste dagozalako, eta abar, eta abar; baiña baite, eta batez be, gazteak gero ta geiago diralako munduan, irabazi-indar geiago dabelako, eta laguntalde mordoen komunikabideak errez be errez eurenganatzen dituelako.

Eta gaiñerakoa erreza da. Bi ta bi batera ezkero, errez lortzen dana dogu, milloika gazteakaz.

...eitara eldu dirala dirudi, au da, ...ratotsa –parkatu, musika– dis...otekena noski, oso kaltegarri ...ala gaztediarentzat, musika bu...unbarri orrete txirotu ebin da...uala gaztea.

Izan ere, Basa-soiñuzko maita...un ori, beragaz daroazan seksu ta ...aitakerizko aidego-kutsu guztie...in, kolorezko jantzi ta arpegi-es...aki ta muxaranga guztiekin, ...izi diran mundutik igesegin» ...earraren edo urrindu-naiaren la...urpena besterik ez da. Analistak ...ta aztertzailleak diñoenez, gaztez ...betzen dan «sukar» ori ez da ...esterik «mundua nastuten burru...ka ta iskanbillai gazteak emon nai ...iokioen erantzun erdizkako bat ...iño». «Jostaldi, zabarkeri, aska...en, kutsudura... olako zerbait da bakar-bakarrik, diñoenez. Izurrite ...aitza, ziur asko; eta onetxek jora daukagun belaunaldi oso-osoa, ...endik be inguruan zer jazoten ja...kon askorik beintzat ez ekiana, ta ...gaur askozaz be gitxiago dakiana.

Gai oni buruz, Ikastetxe nagusi...ko irakasleak eta soziologoak di...ferentzi aundia aurkitzen dabe 60 urteetako gaztediaren, bere rock-and-roll'ak jandako bere burua...az, baiña zerbaiten aurka protes...ta egiten ebenen artean eta ezeren aurka protestarik egiten ez dauan gaztediaren artean. 60 urteetako rock-and-roll-zale areik, ondo edo ...arto, ba-eukiezan siñisteak, elburuak, asmoak, naiz-ta oneik utsaren urrengogoak iraditu izan. Baiña gaurko gazteak, diskoteka iskanbiltsuetan bata-bestearen alboan estu, xoxo ta ergel, alozkeririk itsusienean jausi dirala dirudi; baita konformismorik zentzun bakoenean be.

Beste aldetik, lauki ta kaudro au geiago osotzearren edo, zientzilari azkar eta gizarte gauzetan jakintsu diran gizaseme gurenak, droga-irunste ikaragarria, gaztetxoen norbere burua iltea, gazteen arteko buru-gaixotasunak, alkool –edariak, eta abar jarten dauskuez begi aurrean bizi-bizi. «Nabari dan gauzea da, umeak eta gaztetxoak asko sufritzen dabe; baiña gaitz orren mamiña zein dan erabakitzeko ez gara gauza», diño amerikar osagille ospetsu batek, Derek Miller jaunak; deadar-dei zolia jaurti dau onek diskoteken zer au salaturik.

«Umeak –diño jarraian– gero ta eziketa aske ta zabarragoa artu oi dabe, eta onek ondoren txit galgarriak dakaz». Zergaitik! –«Eurak euren buruak askatuta geratzen dira, gurasoak euren seme-alabakazko erantzun-bearra artu barik itxi egiten dabe-ta. Gazteak, orduan, uste dabenez, ez dira sentitzen gurasoak ulertuak, ezta lagunduak be, bakarrik lez aurkitzen jakuz..., eta orduan, bai ba, guzurrezko atseden-lekuak aurki-

tu nai dabez, eta errealitatetik iges dite: drogak, alkool, dantza... ta diskotekara. Dantza ez da txarra, baiña eurek ez dabe egiten lez bizitzaren garrantzitsuenetik kanpo, euren gain drogea bear da. … Dantza ta musikaren bitartez gorputzaren askatasun zentzu billatu nairik, garuntegia lerdo ta zakar biurtzen da askotan».

**Naturaren atsegiña bakar-bakarrik**

«Gorputzeko atsegiña da, ez buruko, dantzak ekarri bear diguskuna», esan dau Donna Summer kantariak. Eta egiazkoa da, izan be. Gaztek diskotekean, «disko» musika murgildurik, euren kemena ta gura billatu nai dabe, gorputz-aldekoa naski ta sargor bizian. «Disko» musikaren gaiak, eta diskotekak … dan beste tresna ta jogailu guztiak, … be ez dira «iraultzaileak» gazteen munduan … egungo abesti … eta nakilleen-gura, … diruaren … «politika» gai-lerro … «Disko» musikaren gai … maite-gura da. … begira … eta … dira.

Ez dira … maitasunaren gaia … lez agertzen dan. «Egin maitasuna, ta ez gerra», … diaren garrantzia … Gaur baina, maitasunaren gaia … kontrakoa, ogi-ogiaz gorputzen batasuna … agiri-agiriaz baiño.

*A. ONAINDIA'k euskeratua*

**Jirafarik ez**

Gizon bat eta bere lagun juntiñean bandera txiki batzuk jartzen ari zala ikusten du guardiak. Ekintza naiko zaraka iduritzen zaio eta … galdetzen dio:

«Aizu, gizon! zergaitik ari zara bandera oiek lurrean jartzen?»

«Bueno ba, jirafak emendik urrutzeko».

«Aizu, baiñan emen ez dago jirafa bakar bat ere».

«Begira, ikusten al duzu nola funtzionatzen duen tresnak?»